

6. BEZEROEKIKO HARREMANAK

Lurralde hauetako **herritarrekiko** harremana ez da zuzeneko harreman bat izango, gure proiektua interneten bitartez salduko delako, baina Estatuarekiko harremana zuzeneko izango da.(beraiei dena azalduko zaielako aurpegira, dudak, pultseren ezaugarriak, funtzionamendua...)

Hortaz, kontuan izan behar ditugu hauen iritziak eta gureganatu; baita izan ditzaketen iradokizun ezberdinak. Estatu edo Gobernuak duda gehiago izan ez gero, guk sortutako web-gunera jo ahal izango dute eta sakonki informatu.

Interneten bidez saltzeak ez du suposatu behar arazo bat eroslearen iritzia gureganatzeko eta horretarako gure proiektua aurrera eramateko sare sozialetan barneratzea garrantzizkoa da hauen kexak, iradokizunak edo dena delakoak jasotzeko. Horrela, gure proiektua moldatzen eta hobetzen joango gara egunero, jendearekin kontaktuan egotea garrantzizkoa delako.

Aldi berean, *globalizatuko* den produktua izango da munduko edozein txokotatik eska dezaketelako eskaria eta merkatua askoz ere handiagoa izango da. Proiektuan parte hartu nahi izango duten jendearekin kontaktuan jartzeko modu paregabea ere izan daiteke, munduko edozein tokitatik.